Prest! DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

225 zenbakia
2021 **ekaina**

Prest!

BERBETAN: ANDER ROS CUBAS FILOLOGOA

ERREPORTAJEA: GURPIL GAINEAN ALTERNATIBA **BARKUA:** GAUEAN: 10 URTE ESKU-HARTZE KOMUNITARIOAN

TOKIKOM

225-224-223-224-

Sustatzailea

Berbaizu euskara elkartea

Babesleak

intxixu kastola

txantxiku .Deustuko Aisialdi Taldea.

erraldoien ondalan konpartsa

DEUSTO BIZIRIK Comercios, servicios y hostelería de Deusto

BIHOTZ ALAI FOLKLORE DANTZA TALDEA

ARRAVN TALDEA DEVSTV

ELORRI BERTSO ESKOLA

DEUSTUKO JAI BATZORDEA

S.D. DEUSTO

DEUSTUKO GAZTE LOKALA

zirikatzen!

eaj pnv deustu

EGUNSENTIA ESKAUT TALDEA 1982TIK

ernai Deustua

PARE HAUTSI BIZKAIN KATEAK

DEUSTUKO GAZTE ASAMBLADA

Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkartea da edukiaren erantzule bakarra

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Bilbao

Babestu Prest! urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

Izen-abizenak .....
Helbidea .....
Telefonoa .....
E-posta .....
Kontu zenbakia (Iban) .....

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

225 zenbakia
2021eko ekaina

aurkibidea

Maider Zalbidea Pardo - Iker Basabe Mendizabal — **Iritzia** 4

Atsushi Okazaki Suzue — **Gurera etorriak** 5

erreportajea
Gurpil gainean alternatiba

Bizikleta bidezko banaketa zerbitzua lan baldintza duinak errespetatuz eskaintzeko helburuarekin sortu zen iragan irailean Botxo Riders. Lehen pedalkadak erriberako lokal batean eman zituzten Iheringek, Imanolek eta Mikelek, baina orain gutxi Zazpikaleetara mugitzea erabaki dute, bidaietan denbora aurreztu guran. — 6

Deustuko eskola — **Eskolak** 10

Deustuko armarria eta Gernikako Arbola (1877) — **Behin batean** 12

Erriberatarren gutunak eta errenta aitorpenak dantzan — **Artikulua** 14

berbetan
ANDER ROS CUBASekin

Ander Ros Cubas filologoa da. Bere ikerketak euskararen iraganaldian murgildu dira, gehienbat toponimiaren bidez. Berriki Oñatiko artxiboan agertutako XVI. mendeko olerki parea aztertu du. Ros Deustun hazi zen, euskara bazela jakin gabe. — 16

Erriberako Tindategia (1980) — **Irudiak berbetan** 21

barkua bete berba — 24

LITERATURA "Poesia euskaraz idaztea erronka bat da"

KULTURARTEKOTASUNA GAUEAN: 10 urte esku-hartze komunitarioaren baitan

PINTXODROMOA Tripakiak

KULTUR TXOTX Maddi Argote Ledesma eta Maite Sarasola Isazelaia

Prest!

Argitaratzailea:
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Jone Gartzia Gerra
Erredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Nerea Cubillo, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Iker Basabe, Maider Zalbidea, Hodei Torres, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurraga
Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea, Bilbotik Perura
Argazkiak: Ecuador Etxea
Publizitatea: Jone Gartzia Gerra
Diseinua: BO5T
Maketazioa: Laura Freijo Iglesia
Inprimategia: Antza
Ale kopurua: 2.800
Lege Gordailua: BI-571-01

Maider Zalbidea Pardo
Pedagogiako ikaslea

Behatxulo batetik kontrolatuko bagintuzte

Mugikorrak, ordenagailuak, tabletak… gaur egun denetarik daukagu lehen entziklopedia batek ematen zigun informazioa lortzeko. Pentsatzen dugu askatasuna daukagula edozein gauza bilatu eta topatzeko. Eta egia da denetarik aurkitu daitekeela teknologia berriei esker. Abantailak badituzte bai, eta guk askatasuna edozein gauza bilatzeko, baina non geratzen da askatasun pertsonala? Askeak al gara benetan?

Gai honek kezkatzen nau. Lagun batek azazkalak egiteko makina bat erosi eta bera bakarrik etxean zegoela (mugikorra egongelan zuelarik), komunean azazkalak margotu zituen. Egingo zuena pentsatu zuenetik, bukatu arte, ez zuen mugikorrik ukitu. Desblokeatu eta aplikazio batean sartu bezain laster, zer eta azazkalak margotzeko makina baten iragarkia!

Zapatei buruz hitz egin, eta sandalien propaganda, kroketak erosi eta kroketak nire mugikorraren pantailan, lagun batek gauetan hortzetarako zorroak erabiltzen zituela jakin eta hurrengo egunean "hortzak zuzen, hilean 37€ren truke"…

Gutako bakoitza behatxulo batetik kontrolatuko bagintuzte bezala sumatzen dut nik. Gailu elektronikoekin askatasuna daukagu edo ustezko askatasuna da soilik? Gugan daukaten kontrola, sakelako telefono batek balio duena baino garestiago izan daiteke.

Iker Basabe Mendizabal
Ikaslea deserrian

Eurokopa honi ez

Bilbon jokatzekoak ziren egunotan Espainiako selekzioak Sevillan jokatu dituen Eurokopako partidak. Batzuen zoritxarrerako eta gehiengoon zorionerako, ez da horrelakorik gertatu. UEFAren erabakiaren harira, denetarikoak izan dira erreakzioak. Bilbo makro jaialdi hiri bat bihurtzeko asmoa duen eta hirira edozer ekartzeko beren senitarteko bat saltzeko gai den alderdi eta alkateak penaz eta haserrez hartu dute erabakia.

Egunak pasatuz joan direnean, espainiar zaleek Sevillan egindakoak erakusten duten zenbait argazki eta bideo agertu dira. Toreroz jantzitako jende andana eta "Viva España"-ka aritu dira gehienak. Bideoak ikusita, euskaldun peto askok lasaitu ederra hartu dute hori Bilbon gertatu ez delako. Niri sarean ikusitako zenbait euskaldunen erreakzioak galdera batzuk sorrarazi dizkit.

Kritikak aspektu nazionaletik haratago al doaz? Inork pentsatu du Bilbon langile klaseari kalte besterik egingo ez zion ekitaldi honek Sevillan eragin berbera duenik? Jo dezagun Euskal Selekzioa ofiziala dela eta horrelako ekitaldi erraldoi batean parte hartzen duela. Berdin kritikatuko zuten Eurokopa, ala Espainiar selekzioak Bilbon jokatzea zen kexatzeko arrazoi nagusia (edo bakarra)? Batzuetan sentsazioa dut asko oso eroso biziko liratekeela trikitidun, ikurrindun eta txapeldun kapitalismo super euskaldun batean. Minbizia horren kontrako txerto bakarra: internazionalismoa.

Atsushi Okazaki Suzue

Jatorria: Osaka (Japonia)
Bizitokia: Algorta (Getxo)
Lanbidea: futbol entrenatzailea, sustatzailea eta itzultzailea

"Zenbat eta kultura desberdinagoak izan, futbola orduan eta desberdinagoa izango da"

Zer dela-eta etorri zinen Euskal Herrira?

Futboleko entrenatzaile lana izugarri gustatzen zait. Japonian Heziketa Fisikoa ikasi ondoren entrenatzaile gisa prestatzen jarraitu nahi nuen, baina handik kanpo. Arrazoi ezberdinak tartean, Euskal Herrian lurreratu nintzen, lehenik Iruñean, 2010ean, eta 2011tik aurrera Bilbo eta inguruan bizi naiz.

Heldu zinenean, zerk harritu zintuen gehien?

Pertsonen arteko harremanak, jendea askoz hurbilagoa da hemen. Japonian distantzia fisiko eta mental handiagoa mantentzen dugu, espazio pertsonal handiagoa uzten diogu elkarri.

Bada, euskaldunak itxiak garela diote.

Pentsa ezazu orduan japoniarrak nolakoak garen, askoz itxiagoak. Ideia bat izan dezazuen, familia ikusi gabe urtebete daramat, eta bisitan noanean, lehenengo egunean gurasoak ez ditut ukitu ere egingo, ez besarkatu ezta musukatu ere. Hori pentsaezina litzateke hemen.

Nola moldatzen zara hizkuntzarekin?

Oraindik kostatzen zait, askotan zaila egiten zait nire burua ondo azaltzea, nahiz eta 11 urte daramatzadan hemen. Iruñera heldu nintzenean gaztelania oso gutxi nekien, jauzi kualitatiboa entrena-tzen hasi nintzenean eman nuen, etengabe gazteekin hizketan nengoelako.

Euskara ikasteko asmoa duzu?

Gero eta beharrezkoagoa iruditzen zait euskara ikastea, bertokoekin hobeto konektatzeko. Harremanetan hizkuntza oso garrantzitsua da.

Nola iritsi zinen Deustura?

Hasieran Deustun eta San Inazion bizi nintzen, inguru hau ondo komunikatuta dagoelako eta orduan kotxerik ez nuelako.

Eta Deusto KE-ra?

Askartza Clareten haurrak entrenatzen nengoela, Deustuko beheko mailetako harrobiaren arduradunak deitu ninduen eta hemen hasi nintzen lanean. Aurten Deusto KE-ren lehenengo taldea entrenatzen ari naiz, talde osoa eta Deustu bera ordezkatzen duena.

Nolako harreman duzu Deusturekin?

Nire etxea bezalakoa da. Lehenik nire herria dago, eta gero Deustu. Nire bizitzaren zati oso garrantzitsu bat futbola entrenatzea da, eta hori Deustun egiten dut. Niretzat Deustu oso garrantzitsua izango da beti.

Oso desberdinak dira hemengo eta Japoniako futbola?

Bai, futbola kulturaren parte da. Zenbat eta kultura desberdinagoak izan, futbola orduan eta desberdinagoa izango da. Adibidez, Japoniako jendartean ez du hainbesteko pisurik.

Euskara ikasteko asmoa duzu?

Gero eta beharrezkoagoa iruditzen zait euskara ikastea, bertokoekin hobeto konektatzeko. Harremanetan hizkuntza oso garrantzitsua da.

Zer da hemendik gehien gustatzen zaizuna?

Pertsonak; oso gertuak, gardenak eta maitagarriak direlako, eta gauzak bihotzez egiten dituztelako.

Eta gutxien?

Janaria gustatzen zait, baina, aldi berean, koipetsuegia iruditzen zait. Ohituta nago Japoniako janari arinagoa eta likidoagoa jatera.

Sarri itzuli ohi zara Japoniara?

Urtean bitan, ez dakit hori asko edo gutxi den.

Luzerako geratzeko asmoa duzu?

Dagoeneko 11 urte daramatzat hemen, bada denbora. Segur aski Japoniara itzuliko naiz, eta beste leku batzuetara ere joan nahi dut. Printzipioz ez naiz hemen geratuko bizitza osorako.

Zer duzu faltan?

Senideak eta lagunak.

Joko Olinpikoak ikusiko dituzu?

Noski!

GURPIL GAINEAN ALTERNATIBA

Bizikleta bidezko banaketa zerbitzua lan baldintza duinak errespetatuz eskaintzeko helburuarekin sortu zen iragan irailean Botxo Riders. Lehen pedalkadak erriberako lokal batean eman zituzten Iheringek, Imanolek eta Mikelek, baina orain gutxi Zazpikaleetara mugitzea erabaki dute, bidaietan denbora aurreztu guran. Hirurekin elkartu gara banaketaren sektoreaz eta kooperatiben enpresa-ereduaz zabal mintzatzeko;argiak eta ilunak ekarri ditugu erreportajera.

Testua: Jone Gartzia Gerra **Argazkiak:** Laura Delgado Garcia eta Jone Gartzia Gerra

Bilbon mezularitza zerbitzuak bizikletaz eskaintzen dituen kooperatiba bat jaio dela eta lehen egoitza Deustualdean izan duela jakin bezain laster jarri gara harremanetan bertako kideekin. Iheringekin, Imanolekin eta Mikelekin egon gara - azken hau Deustuarra - proiektuaren nondik norakoak ezagutzeko. Enpresaren izenak iragartzen duen bezala, bizikleta bidezko banaketa egiten dute, Bilbon. Txirrindularitzaren munduari estuki lotua daude lehen biak, Ihering eta Imanol, eta kooperatiba enpresa ereduak erakarrita gerturatu da hirugarrena, Mikel.

Ihering da Botxo Ridersen bultzatzailea. Gertutik ezagutzen du multinazional handietan bizikleta mezulari aritzearen ataza. Lana gustuko duela aitortu digu, baina ez dator bat ohiko plataformen bidez inpostazen den enpresa ereduarekin. “Ezin nuen lan hau eskaintzen duten egungo plataformetan egin, eta nire kabuz bide bat zabaltzea erabaki nuen”, azaldu digu. Bide horretan egin zuen topo Imanolekin eta Mikelekin.

Imanol ere bizikletaren sektoretik dator. Ibilgailu honen mekanika bere kabuz ikasi du eta bizikletak konpontzea eta birziklatzea gustatzen zaio. Ihering ezagutu zuenean proiektuarekin bat egitea erabaki zuen, “kooperatiba bat delako eta dena guk egiten dugulako”. Oraingoz, banaketan eta mantentze mekanikoan ari da

Argazkia: Laura Delgado Garcia

batez ere. Ekonomia sozial eta solidarioaren inguruko masterra amaitu berri duen Mikelen arreta ere bereganatu zuen Botxo Ridersek: “Egungo plataforma digitalei aurre egiteko enpresa modu honek atentzioa eman zidan”. Oraingoz administrazio lanetan dabil, baina asmoa etorkizunean “denek dena egitea” da, elkarri lagunduz eta “botere-harremanik gabe”. Euren artean lana antolatzearen eta erabakiak asanblada bitartez hartzearen garrantzia azpimarratu dute hiru kideek.

Txikiek elkartasuna, handiek lehiakortasuna

Bizikleta bidezko banaketa eredua gero eta zalaparta handiago sortzen ari da. Abuztuan sartuko da indarrean autonomo faltsuen kontratua aldatzeko Espainiako Gobernuak onartutako legea. Nahiz eta sindikatuek ohartarazi duten legea ez dela nahikoa izango langileen prekaritateari aurre egiteko eta enpresei mesede egiten jarraituko duela, Glovok dagoeneko jakinarazi du beste enpresa batzuekin batera euren interesak defendatzeko patronala sortuko duela, Espainiako Enpresaburu Elkarteen Konfederaziotik atera ostean.

Bitartean, zerbitzu hau lan duin bidez eskaini nahi duten hamaika kooperatiba sortu dira han eta hemen, bai eta bizikleta-banaketako kooperatiben Europako federazioa osatu ere, Coop Cycle. Horrelako negozio bat hasi nahi duen edonori baliabide teknologikoak eta laguntza sare bat ematen diote. Bertako kide dira Botxo Riderds eta Gasteizen ibilbide luzeagoa egin duen Eraman kooperatiba. Denek komunean dituzten ezaugarriak hauek dira: banaketa soilik bizikletaz egiten dute, kooperatiba dira, langileak ez dira autonomoak eta erabakiak asanblada bidez hartzen dituzte.

Botxo Ridersen erreferente zuzena 2017an Glovo eta Deliverooren aurkako borroken ondorioz langileek Bartzelonan eta Madrilen sortutako bi kooperatiba dira, Mensakas eta La Pajara, hurrenez hurren. Gasteizko Eramaneko kideek ere asko lagundu diete eredu hau gurera ekartzen. Gainera, aurreratu digutenaren arabera, Euskal Herrian beste lau kooperatiba formalizatzear daude (Bidasoaldean, Andoainen, Arrasaten eta Iruñean) eta euskal federazio bat osatzeko ideia badute bueltaka. “Enpresek elkarren artean lehiatu beharrean elkarri laguntzen dioten sistema kooperatiboa da hau”, biribildu du Mikelek. “Asmoa eredu hau jarraitzen duten gero eta enpresa gehiago sor-tzea da, elkartuta plataforma handiei

“Enpresek elkarren artean lehiatu beharrean elkarri laguntzen dioten sistema kooperatiboa da hau”

Argazkia: Laura Delgado Garcia

aurre egiteko", diosku Iheringek, horrela bezero eta hornitzaileekin negoziatzeko indar handiagoa izango dutelakoan.

Zein da plataforma handiekin desberdintasuna?

Lana antolatzen dieten aplikazioen algoritmoen menpe bizi diren banatzaileen bakartasunaren aurrean, eredu kolektiboa proposatzen dute aztergai ditugun enpresa-ereduek. Imanolek azaldu digun bezala, "plataforma handi batentzat lan egiten duen 'riderra' bakarrik dago, aplikazio baten bidez komunikatzen da bezeroarekin eta ez du inolako harremanik modu faltsu batean etengabeko lan karga ematen dion enpresarekin". Kontrara, haiek talde-lanaren eta banaketa-prozesu osoaren kontrola izatearen apustua egiten dute. "Aldea handia da: guk bezeroekin eta hornitzaileekin zuzeneko tratua dugu", argi utzi du.

Banaketa zerbitzua eskatzen duen bezeroarentzako ere desberdintasuna dagoela zehaztu digute. Norbanakoekin lan egiten duten arren, bezero gehienak enpresak omen dira, elikadura eta kosmetika sektoreetakoak. Horien artean badaude eskariak aplikazio bidez egiten dituztenak eta telefonoz deitzea nahiago duten denda txiki eta tradizionalak. "Aplikazioa ondo dago, baina telefono-deien bitartez gertutasun hori mantentzeak bereizten gaitu", gaineratu du Iheringek.

Botxo Ridersen bultzatzaileak uste du pixkanaka gero eta ezagunagoak direla euren gisako proiektuak. Areago, plataforma handiek publizitatea egiten dietela aitortu digu barrezka. Izan ere, eredu horren aurka dagoen jendeak "alternatiba gisa" ikusten omen ditu ematen duten "gertuko tratuagatik" eta sustatzen dituzten "balio sozial eta ekologikoengatik".

Lana dute plataforma handiei aurre egiten, baina ideiak oso argi dituzte. "Egoera latza da, plataforma hauek sistemaren ondorioak dira, denborarekin erregularizatzen joaten direnak, baina legea motela da eta interes jakin batzuei erantzuten die", azaldu digu Mikelek. "Guk uste dugu jendea antolatu behar dela zerbitzu bera beste baldintza batzuetan emateko", jarri du azpimarra.

Kontsumoaren eta lanaren eraldaketa

Online salerosketen gorakadak ezinbestean ekarri du banaketa zerbitzu tradizionalak aldatzea. Azkartasunaren eta merketasunaren bila, langileen baldintzak itotzeraino estutu dituzte negozio biribila egin duten enpresek. Are gehiago, 2020ko konfinamenduak eta osteko mugikortasun mugek prozesu hau bortizki biziagotu dute. Imanolek uste du online erosketen ondorioz gauzak etxean jasotzera ohitu garela, kontsumitzerako orduan behar bat izatera heldu den arte. "Kontsumitzeko eta lan egiteko modua aldatzen ari da, baina oraindik kontrolatu eta erregularizatu gabe dago. Trantsizio aro batean gaude, eta zaila da, dena arautu behar delako", adierazi du.

Iheringek argi du etxetik mugitu gabe ia edozer erostea eta bertan jasotzea "luxuzko zerbitzu bat" dela. Bere ustetan, plataforma handiek lan baldintzak zapalduz zerbitzua merkatzea eta jendarteratzea lortu dute. "Orain jende asko konturatzen ari da zerbitzu horrek prezio bat duela eta orain arte ez dutela ordaindu, banatzaileen diruarekin beste norbait geratzen ari zelako".

Mikelen aburuz kooperatiba da gaur egun enpresa bat langileena dela hoberen islatzen duen eredua. Adierazi digunez, "langileen arteko berdintasuna sustatzen du hierarkiarik gabe antolatzen direlako". Era berean, gaineratu nahi izan du badaudela handitu ahala hierarkizatzen joan diren kooperatibak, baina euren helburua "berdintasunezko eredu hau mantentzea" dela esan digu, "tokiko ekonomiarekin harremanetan egoten eta komunitatean parte hartuz".

"Guk uste dugu jendea antolatu behar dela zerbitzu bera beste baldintza batzuetan emateko"

"Bilbon egin badaiteke, edonon egin daiteke hau"

Bidegorri sareak dituen hutsuneekin, auzo batzuetako aldapa malkartsuekin eta 'Botxoaren' eguraldi euritsuarekin, ez du ematen egunero bizikleta gainean lan egitea gauza erraza denik. Aitzitik, gure usteen kontrara, praktikan pentsatu baino arazo gutxiago izaten ari direla azaldu digute hiru txirrindulariek. Imanolen iritziz Bilbo ez da trafiko astuneko hiria, eta orain gainera orduko 30 kilometrora dago mugatuta ibilgailuen abiadura. "Ez da hiri arriskutsua, ezta kaotikoa ere, eta gainera erdialdean ez dago aldapa handirik", laburtu du. Hori bai, eguraldi traketsari aurre egiteko laneko arropa egokia izatea garrantzitsua dela gogorarazi digu. Bilbon tokietara bizikletaz iristeak dakarren ahalegina kontuan hartzen duen tarifa-sistema aurkitu dute eta, oztopoak gorabehera, ondo funtzionatzen dutela esan digu Iheringek. "Bilbon egin badaiteke, edonon egin daiteke hau", amaitu du.

ROKODROMO BERRIA DEUSTUKO ESKOLAN

Umeek daukaten energia guztia bideratzeko eskalada era polita da. Hori dela eta, rokodromoa eskolan izatea oso interesgarria izan zitekeela pentsatu genuen.

Testua eta argazkiak: Deustuko eskola

Hasiera batean, ez geneukan argi non eta nola, baina, bai rokodromoa nahi genuela, eta asmo horrekin ideiak biltzen hasi ginen. Ondo aztertu ondoren, erabakia hartuta zegoen: ez genuen rokodromo altua nahi, luzea baizik. Izan ere, honek umeei era horizontalean mugitzeko aukera ematen die, altuera gehiegi hartu gabe, istripuak ekiditeko.

Eskalada-murruarekin gozamena ziurtatuta dago. Umeen artean, txikiak zein nagusiak, oso arrakastatsua izan da eta harrera ezin hobea izan du. Gainera, gozamena ez ezik, eskaladak beste onura batzuk ere eskaintzen dizkie umeei.

Alde batetik, onura fisikoak: muskulu talde handi bat erabiltzea eskatzen duten beste hainbat kirolek bezala, eskaladak koordinazio ona izaten laguntzen du. Era berean, propiozepzioa eta gorputz-eskema garatzen dira. Horri guztiari gehitu behar zaio haur-eskaladak memoria motorra hobetzen eta umeen gorputz eskemaren ikuspegi globalagoa izaten laguntzen duela. Eskaladak, besteak beste, indarra, psikomotrizitatea eta oreka ere trebatzen laguntzen du.



Bestetik, kognitiboki, erabakiak hartzeko trebakuntza eskatzen duen kirola da. Aldi berean, kontzentrazio maila hobetzen eta pentsamendu exekutiboaren funtzioak garatzen laguntzen digu. Gainera, eskaladak laguntzen digu erronkei aurre egiten eta gainditzen, honekin autoestimua hobetuz.

Ikusten denez, rokodromoko eskaladak gure umeen garapena osotasunean lortzen ahalbidetzen du era ludikoan.

Deustuko ikastetxean prest gaude gure eskalatzeko hormaz gozatzeko, erronka berriei aurre egiteko, gure mendirik altuenak igotzeko.



DEUSTUKO ARMARRIA ETA GERNIKAKO ARBOLA (1877)

Zokondo honetako testuak irakurri ohi dituzuen guztiok ondo dakizuen bezala, Deustua herria izan zen gutxienez XV. eta XX. mendeen artean, 1925ean Bilbok bereganatu zuen arte. Deustuak udaletxea eduki zuen, bandera eta armarria.
Azken horretaz egingo dugu berba.

Testua: Hektor Ortega

1876ko urrian, foruak kendu berritan, Bizkaiko Gobernadore Zibilak idatziz agindu zien udalerri guztiei erabili ohi zuten zigiluaren kopia bidaltzeko, baita haren sinbologiaren azalpena ere. Deustuko Udalak ere jaso zuen idazkia, eta erantzun egin zuen, denbora apur bat hartu bazuen ere. Lerroon ondoan azaltzen den agiria bidali zion Gobernadore jaunari 1877ko urtarrilaren 16an.


ALCALDIA DE DEUSTO

Esplicacion del sello.

Arbol, llamado de Guernica
Corazon, amor al arbol.
Lobos, defensores del arbol.
Llaves, emblema de la Parroquia
de la Anteiglesia, llamada de
San Pedro Apostol.

Zigiluan Deustuko armarri historikoa ikusten da. Alegia, leku gehienetan erabili izan den irudi sorta. Goialdean otso bi ageri dira. Behean, berriz, zuhaitza, orri artean bihotza daukana. Eta alboetan giltzak. Gobernadoreak galdetu zuenez, azalpena eman ere egin zion Deustuko Udalak, Julian Larrondo alkateak sinatuta. Honela irakurri zuten deustuar kargudunek armarria: zuhaitza Gernikako arbola da. Bihotzak arbolari maitasuna esan gura du. Otsoak, berriz, zuhaitzaren zaindariak dira, haren defendatzaileak. Eta, azkenik, giltzak San Pedroren ikurra direlako ageri dira, elizatea Deustuko Done Peri edo San Pedro delako.

Ez da dudarik armarriaren benetakotasunaz. Oso antzekoa da Deustuko Udaletxean harrian zizelkaturik zegoena, gaur egun Bilboko Euskal Museoan gordea. Eta horrelakoak dira, halaber, gorde diren Deustuko udal zigiluak, baita txinelek (aguazilek) jantzi eta txapeletan josita eramaten zuten disko metalikoa. Txema Luzuriagak 'Deustuko argazkiak I' liburuan horietako bat jaso zuen eta armarriaren azpian euskaraz dakar jarrita: Deusto'ko Udala. Beraz, gutxienez XIX eta XX. mendean Deustuko armarria hori izan zela pentsa dezakegu.

Gernikako Arbola ote?

Hala esan zion Julian Larrondo buru zuen Deustuko Udalak Gobernadore Zibilari. Armarrikoa, Gernikako Arbola zela. Baina, hala ote da? Gernikako Arbola da? Guk ez dugu aurkitu indiziorik holakorik esan ahal izateko. Pascual Madozek 1847ko bere hiztegi ezagunean honela deskribatu zuen Deustuko armarria: "Hace por armas un árbol, dos lobos, cuatro llaves y un corazón partido".

Ezin ebatzi, beraz, Gernikako Arbola den ala ez. Baina ez dugu ahaztu behar sasoi hartako giroa. 1876ko uztailaren 21ean, gerra karlista irabazi eta gero, Estatu espainolak euskal foruen azken arrastoak abolitu zituen. Hego Euskal Herria goitik behera zirraratu zen. Bere askatasunak galdu zituen eta askatasun haien ikur nagusia -Iparragirreren himnoak agerian laga zuen bezala, ikus Jose Mari Esparzaren 'Gernikako Arbolaren biografia'- Gernikako Arbola da.

Baina foruekiko atxikimendua ez zen sentimendu hutsa; praktikoa ere bazen. Foruak bertan behera utzi eta sei hilabete geroago Espainiak soldaduska ezarri zien Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako mutilei (Nafarroakoei 1841ean). 1857an jaiotako gizonak armadara deitu zituzten urtarrilaren 18an, Deustuko Udalak Gobernadoreari zigiluaren azalpenarekin erantzun eta egun bi geroago, alegia. Agindua eman zieten arren, Bizkaiko udal askok ez zuen alistamenduan lagundu gura izan. Horietakoa izan zen Deustuko Udala.

Urtarrilaren 21eko udal batzarrean ez kolaboratzea erabaki zuen. Hiru egun geroago, hilaren 24an, guardia zibil bi agertu ziren Deustuko udaletxean agindua betearazteko asmoz. Julian Larrondo eta gainerako udal kargudunek irmo erantzun zuten: "Contestaron sus señorías que ni su conciencia ni sus deberes les permitía cumplir con lo ordenado". Txapelokerrek, ostera, are gehiago estutu zituzten: "Manifestaron los espresados guardias que tenían orden de usar de todos los medios coercitivos hasta el último estremo para que esa ley tuviera debido efecto". Orduan udal kargudunek, beste biderik ezean, amore eman zuten. Prentsaren arabera, egun horietako batean (segurutik hilaren 21ean, Udalak ez kolaboratzea erabaki zuenean) Deustuko alkatea -Julian Larrondo, antza denez- atxilo eraman zuten (ikus PREST!116) baina laster askatu zuten.

Giroa gori-gori, gehiegi ote da pentsatzea Deustuko Udalak Gobernadore Zibilari mezua igorri ziola herriko armarriaren azalpena ematean? Alegia, Gernikako Arbola bizirik zegoela eta bazeukala nork maita, nork zaindu. Egun gutxi batzuk geroago demostratu ere egin zion.



Kalderapeko
euskal kultur gunea
www.kalderapeko.com
txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

URTEBETE SUKURTSALIK GABE

Arangoitiko bizilagunek urtebete baino gehiago daramate auzoan banku operaziorik egin ezinik. Iazko udan Caixabanken eta Kutxabanken egoitzak itxi zituztenetik Doneperiagara joan behar dira zuzeneko arreta jaso nahi badute.

Testua: Jone Gartzia Gerra **Argazkiak:** Bihotzaran Auzo Elkartea

Maiatzaren 20an Arangoitiko 250 bat bizilagun elkartu ziren Bilboko Kale nagusian dauden Kutxabank eta Caixabanken egoitzen aurrean auzoan banketxeon sukurtsalak itxi izana salatzeko. Iragan udan, konfinamendu ostean, Arangoitin zeuden bi banketxeak itxi zituzten, eta Kutxabankek kutxazainari eusten dion arren, Caixabankek hori ere erretiratu du. Bilbokoa ez zen izan arangoititarrek antolatutako mobilizazio bakarra, izan ere, bost egun lehenago Egileor plazan elkartu ziren Bihotzaran Auzo Elkarteak deituta.

Kexu dira banketxeen egoitzen itxierak aurrez aurre artatuak izateko aukera gabe utzi dituelako auzokideak, tartean mugikortasun arazoak dituztenak, izapideak Internet bidez egiteko zailtasunak dituztenak edo "beren profil sozioekonomikoagatik eten digitala euren larruan pairatzen duten pertsonak" direla.

Angel Prieto Bihotzaraneko bozeramaileak argitara eman duenez, sukurtsalen itxierak auzoko dendariei gogor eragin die. Izan ere, eskudirua ateratzeko, diru xehea lortzeko eta edozein izapide egiteko auzotik atera behar dira eta, "lehen bost minututan egiten zutena egiteko orain ordubete baino gehiago behar izaten dute". Gainera, azkenaldian banketxeetan itxaron ilara handiak egoten dira.

Kontuan hartzekoa da Arangoitiko irisgarritasuna ez dela ona eta, auzo txikia izanagatik, 5.000 pertsona bizi direla bertan. Horiei guztiei eragiten die sukurtsalen itxierak, batik bat adinekoei, mugikortasun arazoak dituztenei eta izapideak Internet bidez egiteko arazoak dituztenei.

Auzo elkartearen ustez, "erabat ulertezina da erakunde horien onura ekonomikoak handitzen ari diren bitartean, sukurtsal horietako langileak kaleratzea eta aurrez aurreko arreta-zerbitzua prekarizatzea, bereziki Kutxabank eta Caixa bezalako erakundeetan, aurrezki kutxa publikoak baitziren, erakunde publikoetatik eta aurreztaile txikietatik sortuak".

Banketxeen berririk ez

Arazoarengatik kezkatuta, banketxeongana jo zuten Bihotzaraneko kideek, itxierak birplanteatu zitzatela eskatzeko. Erantzunik jaso ez zutenez aipatutako mobilizazioak antolatzea erabaki zuten, baina horrela ere ez dute lortu inolako azalpenik. Eskatzen dutena ez da asko: "Gutxienez bi sukurtsaletako bat astean behin bada ere arreta presentzialerako irekitzea", Angel Prietoren hitzetan. Hauen erretiratzeak auzokideen bizi-kalitatean dituen ondorio kaltegarriez jabetuta, konponbidea lortu arte mobilizatzen jarraituko dutela aurreratu du auzo elkarteko bozeramaileak.

ERRIBERATARREN GUTUNAK ETA ERRENTA AITORPENAK DANTZAN

Correoseko funtzionamendu txarra dela eta, Erriberako auzokideek hilabete eman dezakete gutunik jaso gabe. Gainera, hainbatetan euren gutunak taberna edo lantegiren batean topatu dituzte edo beste auzokide batzuen postontzietan. Correosen eta Kontsumobiden salaketak jarri dituzten arren, arau-hausterik ez dagoela erantzun diete.

Testua eta argazkiak: Nerea Olaziregi

"Arazorik duzue postarekin? Badira aste pare bat gutunik jaso ez dugula eta kontu administratibo garrantzitsuen zain gaude" Mariek Erriberako auzokideen Whatsapp taldera bidalitako mezuak berehala jaso zituen erantzunak. "Gurean hilabete daramagu gutunik gabe eta espeleologia federazioko txartela aspaldi heldu behar zitzaigun" idatzi zuen Nereak. "Guk bi hilabete", gaineratu zuen Nakorrek. "Nirera ere ez dira heltzen – Itzik - Ogasunean esan didate errenta aitorpena aspaldi bidali didatela baina hona ez da ezer heldu". Lourdes berriztutako gida baimenaren zain dago oraindik, Emilio tabernariari ez zaizkio fakturak heltzen eta Ibairen etxera isun bat heldu zenerako, aldez aurretik ordaintzeko epea agortuta zegoen eta ehuneko ehuna ordaindu behar izan zuen. Ez da bakarra izan. Gainera, hainbatetan tabernan edo lantegiren batean, banatu gabeko gutun multzo bat agertu da, errenta aitorpenak barne, eta auzokideek beraiek egin behar izan dute postari lana. Beste askotan, helbidea ondo jarrita egonda ere, eskutitzak beste postontzi batzuetan agertu dira.

Egoeraz nazkatuta, hainbat kexa jarri dituzte Correosen. Auzo Elkarteak ere, berea jarri zuen eta era guztietako erantzunak jaso dituzte. Adeitsuak eta zakarrak. Nereak, adibidez, Correosen txarto tratatu zutela dio eta

Correoseko postariaren motorra Deustuibarran

Artiach fabrikan agertutako gutun multzoa.

Itzik Kontsumobide Kontsumoko euskal institutuan salaketa jartzeko trabak baino ez zituela eduki: "Aldez aurretik hitzordua eskatu behar nuela esan zidaten eta soilik egun zehatz batzuetan". Hala ere, jartzea lortu zuen, baina, erantzunarekin harrituta geratu da: "Esan didate ez dutela arau-hausterik ikusten eta ez dut ulertzen. Normala da hilabete postarik gabe egotea? Atzerapen horrek hainbat eragozpen ekarri dizkigu eta gure gutunak tabernetan edo beste auzokide batzuen postontzietan dantzan ibiltzea gure intimitatearen kontra doa". Berak argi du: "Correos pribatizatu nahi dute eta funtzionamendu kaxkarra horrekin lotuta dago".

Postariekin hitz egiteko aukera izan dutenean, gainezka daudela esan diete. Hiru astero kaleratu edo tokiz aldatzen dituzte eta gunea menderatzen hasten direnerako, berria jartzen omen dute. Badira ere lehentasuna beste auzo batzuk dituztela uste duten auzokideak: "PREST! aldizkaria, adibidez – dio Aitorrek - Deustura lehenago heltzen da, guk atzerapen handiarekin jasotzen dugu beti". Erriberako auzokideek ez dakite zein den konponbidea baina auzoan kalitatezko posta zerbitzu publiko bat izan arte ez dute etsiko.

berbetan

ANDER ROS CUBASekin

Filologoa

“XVI. mendearen hasieran bazegoen

Ander Ros Cubas filologoa da. Bere ikerketak euskararen iraganaldian murgildu dira, gehienbat toponimiaren bidez. Berriki Oñatiko artxiboan agertutako XVI. mendeko olerki parea aztertu du. Ros Deustun hazi zen, euskara bazela jakin gabe.

Testua: Hektor Ortega
Argazkiak: Ecuador Etxea

euskaraz olerkiak idazteko tradizioa”

Deustun jaio zinen?
Ez. Lehenengo urte biak Basurtun eman nituen. Aita militarra zen. Torremadariagako etxebizitza bat eman zioten eta urte bi nituela etorri ginen.

Noiz arte egon zinen Deustun?
Halako batean gurasoek, batez ere amak, mirakulua egin zuten. Soldata ziztrin batekin eta hamaika neba-arreba izanik... Bai, hamaika! Eta pisu bi erosi zituzten batera Txurdinagan, Franco hil zen sasoian. Haurtzaroa, beraz, hamabi urte bete arte, Deustun. Haurtzaro zoriontsua. Hau herri bat zen.

Euskararekiko harremana zelan hasi zitzaizun?
Nik Deustuko nire urte haietan ez nuen hizkuntza ezagutu. Geroago izan zen, Txurdinagan. Deustun ezagutu nuen ikurrina, ezagutu nuen ETA bazela, panfletoen bidez, euskara bazela jakin gabe!

Baina euskaldundu egin zinen eta filologia ikasi zenuen...
Txurdinagako institutura joatean giro abertzalearekin topatu nintzen. Etxetik ere edan genuen. Aita militarra zen, baina nafarra eta EAJkoa. Eta aitak esaten zuen: edo nafarra edo espainola, baina biak batera ezin da izan. Bai, horixe esaten zigun, militarra izanda! Eta gu nafarrak ginen! Aitak eman zizkidan Zamarriparen eta Azkueren gramatikak. Eta halako batean, institutuan, gure anaia Patxik eta biok hitza eman genion elkarri, artean euskaraz jakin gabe, ez geniola elkarri erdara gehiago egingo. Eta bete egin dugu, harrezkero. Handik gutxira Amorotora joateko aukera sortu zitzaidan, hango herriko tabernara. Hara joan, hilabete pare bat han eman, Amorototartu nintzen, neska-laguna... Eta institutuko azken urtea, UBI, euskaraz egin nuen, Txurdinagan bertan.

Eta gero karrera Deustun?
Bai. Garai hartan AEK-n hasi nintzen irakasle. Lehenengo Begoñan gau-eskola martxan jarri genuen, apaizen lokaletan. Gero, Patxik eta biok Txurdinagan muntatu genuen. Eta bost-sei neba-arreba gehiago, ikasle. Ordurako filologian hasi nintzen, baita ikerketan ere. Deustuko karrera nahiko frustragarria izan zen, maila eskasa zegoelako. Laugarren kurtsoan hasi nintzen serio hartzen. Eta orduan ‘Enseiucarrean’ aldizkaria abiatu zen unibertsitateko Euskal Kultur Mintegian. Han parte hartu nuen eta denbora gutxian nire ikerketak publikatzen hasi nintzen! Hitanoaren jatorriari buruzko lan bat atera nuen eta oihartzun handia eduki zuen. Oraindik ere esango nuke ez duela baliorik galdu.

“Testua lehenengoz ikusi nuenean mozkor sentsazio etsigarri bat eduki nuen...”

SAKONEAN

Deustuko toponimia

Bilboko eta Deustuko toponimia jaso eta aztertuta zaude. Zer traza hartu diezu?
Oso aberatsa zela Abandoko toponimia; oso aberatsa, Buia eta Zeberetxe; Begoña, tira, eta Deustu, pobrea. Euskara aldetik ere, Deustu euskara galtzen lehena izan zen eta horrekin lotua behar du izan... Deustuko baserri izenak kenduta, ezer gutxi. Beste herrietan ez: solo, mendi, troka, erreka... dena.

Deustuko toponimia pobre horretan zer ikusirik dauka herri txikiagoa izateak?
Txikiagoa da, bai, baina esango nuke toponimia oro har pobreagoa gorde duela. Baserrietako solo izenetan, adibidez, alde handia dago. Hala ere, bada harribitxirik, Traidoretegi esate baterako. Eta euskara aldetik ere, Buia-Zeberetxeko euskara Arrigorriagakoa da. Begoñakoa, berriz, Zamudiokoa, euskara diferente samarra. Eta Deustukoa ez dugu ezagutu, baina itxura guztien arabera, Erandio edo Txorierrikoarekin lotuta egongo zen. Eta gero Bilbo, hiria. Bilboko euskara ez dugu ezagutu, baina toponimia bai. Ikusten da tradizio bikoitza zegoela, izen askok bazutela euskarazko bertsioa eta erdarazkoa: Somera eta Goienkalle, calle Correo eta Korreokalle. Beti kalle. Kale asmakizun berria da. Kalle antzinakoa eta jatorra da: Txitxarrokalle esan izan zaio Barrenkalle Barrenari. Sendeja eta Zingira. Tradizio bikoitza. Begoñan-eta ez, hori euskalduna zen.

Ikerketei lotuta segitu duzu harrezkero. Toponimiari kasu handia egin izan diozu, zergatik?
Toponimiarena zeharkako kontu bat izan da. Nik aditzaren jatorriari erreparatu nahi nion eta proto-euskarara bideratu nahi nuen tesia. Eta klaro, datu gutxi dago, material gutxi. Toponimia da informazioa eman dezakeen iturri ia bakarra. Eta halako toponimo zerrenda batean Begoñako baserrien izenak ikusi eta txundituta geratu nintzen, zelako izen ederrak! Karreran Nerea Mujika irakasleak Eusko Jaurlaritzak toponimia biltzeko lantalderako laguntza eskatu zuen eta ordurako banenbilenez saltsa horretan, aurkeztu nintzen eta hartu egin ninduten. Nik Bilbokoa eta Hego Uribe osoko toponimia egin nituen. Eta Bilboren zazpigarren mendeurrenean Deustuko Unibertsitatean lantxoa aurkeztu nuen.

Prentsan agertu zara berriki aurkikuntza eder baten partaide izan zarelako: 'Ene laztan gozo ederra' olerkia Oñatiko artxiboan agertu da...
Bueno, aurkikuntzarena ez, hori Rosa Maria Aierbek aurkitu zuen. Artxiboko

lana bakarkako lana da, baina batzuetan aurkikuntzak konpartitzen dira. Rosa Mariaren lan eremua ez da euskal filologia eta artxiboko zuzendariaren esku utzi zuen. Eta zuzendariak, Ramon Martinek, nahiago izan zuen lehenengo balorazioa artxiboan bertan egitea. Artxiboko "bezeroekin" egin zuen, lago Irixoarekin, lehenengo, eta nirekin gero. Testua lehenengoz ikusi nuenean mozkor sentsazio etsigarri bat eduki nuen...

Poema eta notariotzako testua dena batera zeudelako?

Bai. Lana patxadaz egin beharko zen. Ematen zuen gutuna zela, prosa zela. Erdarazko testuaren alboan dago, espazio libreetan. Eta ezkerreko zatia nahiko egoera txarrean, zati batzuk faltan... Lan gaitza zen. Argazki ultramoretik igarota hobeto ikusi genuen. Eta lantaldean jorratu genuen, emailez Ramonek, Iagok eta hirurok. Leku askotan erdarazko eta euskarazko testuak gainjarriak zeuden. Hori garbitu behar izan genuen. Eta horrek interpretazio lana eskatzen du. Oraindik ere dozena bat berba ez dauzkagu argi... Lan hori egiteko dago, baina aurkikuntza jendaurrean aurkeztu zenetik impasse egoeran gaude, zain.

Arazoak arazo, aurrekaririk gabeko testu bat aurkitu zenuten, XVI. mende hasierako euskarazko olerkia idatziz.

Poesia bi dira eta beste baten hasiera, baina zirrimarratua. Aurrekaririk gabe? Bai eta ez. Estibaliz Sasiolakoarekin antz izugarria dauka poesietako batek. Eta gero, oso bitxia, halako batean konturatu ginen 'Egun bereko alarguntsa' balada ia berdin jasota dakarrela, baina Jean Jaurgainek aztertua zuen eta balada horren testuinguru historikoa bilatua zion XVII. mendean. Hau lehenagokoa da eta molde bera du. Baina 'Egun bereko alarguntsa'-n osorik eta koherente agertzen dira. Hemen, berriz, elementu berak 150 urte lehenago, baina testuingururik gabe, nahasita. Beraz, ezagunak ziren molde horiek baina honen egilea ikaslea zen edo mozkor zegoen, edo ez dakit. Hala moduz erabiltzen ditu. Baina formula bazegoen ordurako. Tradizioa zegoen. Hauek ez dira lehenengo olerkiak izan. Tradizioa zegoen. Argi dago.

Nork idatzi zituen olerkiok?

Hori ere argitzen ahalegindu gara. Martin ari zen egilea identifikatu nahian. Pentsatzen du eskribauaren ikasle edo pasante bat izango zela, idazten zekiena.

Onomastika elkartean ere bazabiltza buru belarri. Zertan da elkartea?

Orain pandemia urtea gainditu beharrean. Egia esan, Ricardo Cierbide hil zitzaigun, kolpe latza izan zen eta apur bat umezurtz utzi gintuen. Segituan, pandemia eta gero eraso asko eta laguntza batere ez. Ia-ia klandestinitatean ibili behar izan gara, kide batzuk izena ezin agertuta errepresalien beldur. Bai, hola da. Tristea. Orain ari gara burua agertu beharrean. Amurrioko Jardunaldiak egingo ditugu, Aztarna elkartearekin batera, eta Aramaion egoitza eta liburutegia zabaltzeko lanean ari gara.

"[Onomastika elkartean] ia-ia klandestinitatean ibili behar izan gara, kide batzuk izena ezin agertuta errepresalien beldur"

MUSIKA - Intoxikado

Beñat Garcia 'Benji' ibarrekolandatarrak bultzatutako Intoxikado musika taldeak izen bereko lehen diskoa kaleratu berri du. Guztiz autoekoitzia da eta abesti propioez osatuta dago, nahiz eta GG Allinen bertsio bat ere jasotzen duen. Benji, Iosu eta Otxoa dira taldekideak, eta "musikaren negozioari autoekoizpenaren eta autogestioaren bidez" aurre egin nahi diote. Sare sozialetan, Youtuben eta bandcampen aurkituko dituzue.

HERRI ALDIZKARIAK - Drogettenitturri

Ermuko eta Mallabiko Drogetenitturri herrialdizkariak 300. zenbakia kaleratu du maiatzean. Aldizkaria 1989an sortu zen Ermuko Euskal Birusa Euskara Elkartearen ekimenez inguruan euskara zabaldu eta sustatzeko helburuarekin, eta boluntarioz osatutako lantaldeak eraman zuen aurrera. Orduan hiru hilean behin kaleratzen zen aldizkaria, eta 100 pezetatan saldu. 1992ko ekainean, 9 zenbaki jarraian kaleratu eta gero, aldizkariaren jarraipena kolokan ikusita eta hausnarketa sakon baten ostean, soldatapeko langile finko batek hartu zuen aldizkariaren pisurik handiena. 1993an ale berezia kaleratu zuten, eta 1994ko urtarriletik aurrera doako hilabetekaria izan da.

"Agur Filete"

Iñaki Lopez de Gereño 'Filete' zendu da, osasun arazoengatik 53 urte zituela. Deustun oso ezaguna zen Filete, Xabier Lopez de Gereño idazlearen semea izateaz gain, Baiona Tabernako jabea eta Peña Athletic Baiona Beñat kirol-lagunartearen presidentea ere bazelako. Lagunek eta gertukoek omenaldia egin zioten ekainaren 15ean Baiona Tabernaren aurrean. Txalapartariak, dantzariak eta bertsolariak izan ziren eta amaieran oroimen plaka bat eskaini zioten bere alargun Begoña Oleagagoitiari.

SEPURUKOATXA: Begiratokia eta atsedenlekua egingo dituzte tontorrean

Bilboko Udala begiratoki bat eta aisialdirako gune bat eraikitzen hasi da Sepurukoatxa mendiaren tontorrean. 1.500 metro koadro izango ditu atsedenlekuak, bost mahairekin, iturri batekin, hondakinak bereizteko zakarrontziekin eta haurrentzako jolaslekuekin. Egurrezko egitura bat ere jarriko dute begiratokia atontzeko. Udalak jakinarazi duenez lanak egiteko lau hilabetekoa epea eta 149.818 euroko aurrekontua izango dute. Proiektua Artxandako Aktibazio Planaren barruan kokatzen da, eta Enekuri eta Egirleta arteko pasealekua garatzearekin batera egingo dute.

DEUSTUKO GAZTE LOKALA

Hirugarren hamarkada

Ekainaren 21ean 30 urteko ibilbidea ospatu zuen Deustuko Gazte Lokalak. 1991ko ekainaren 21ean okupatu zuen Deustuko Gazte Asanbladak Luzarra kaleko merkatu zaharra; gerora, 2007an, alboko 'Txoridenda' okupatu zuten. 2017ra bitartean gaztetxearen jarduna egonkorra izan zen, harik eta Udalak gutun bidez akordioa hautsi zuela jakinarazi zien arte. Orduan jarri zuten abian 'Defenda dezagun' kanpaina. Nolanahi ere, gaztetxeko lanarekin jarraitu dute eta 2021ean hogeita hamar urte betetzera heldu da gazteak elkartzeko eta antolatzeko gunea. Urteurren biribila ospatzeko ekainaren 21ean ekitaldi xumea antolatu zuten Done Petri plazan, argazki erakusketa zabal batekin, musika emanaldi batekin eta kalejira girotuarekin. Ekitaldiaren amaieran aurreratu zuten udazkenean jarraituko dutela ospakizunekin, urriaren 13tik 23ra bitartean, hain zuzen.

ARRAUNA

Indartsu hasi da Deustu ETE ligan

Hasiera bikaina eman diote Deustuko arraunlariek emakumezkoen ETE ligari. Pasai San Pedron jokatu zen lehenengo estropadan (Tolosaldeko II Ikurriña) bigarren sailkatu ziren etxeko taldearen atzetik. Hurrengo egunean, ekainaren 20ean, Getarian Andoni Galarragaren oroimen estropadan garaipena lortu zuten Tolosaldeari bost segundo aterata. Horrela, lehenengo postuan jarri ziren Tolosaldearekin 21 puntutan berdinduta. Estropada gogorra izan zen, haizetsua eta itsaso zabalean, baina, deustuarrek fisikoki indartsu daudela erakutsi zuten bigarren luze ikusgarria eginda. Itsasadarrean entrenatzera ohituta daudenez, itsaso zabala ez da inoiz izan Deusturen indargunea, areago, konfinamendua dela-eta gutxi entrenatu ahal izan dute kanpoan. Edonola, prestaketa fisikoa asko landu dute eta batel eta trainerilletan erakutsi bezala amaiera indartsuko taldea dira. Dudarik gabe, balio handiko garaipena eskuratu zuten ekainaren 20an, eta hasi berri den Ligan jarraitzeko konfiantza eman die arraunlariei.



Edurne Urkizun utzitako argazkia.

Urtea: 1980

Txema Luzuriaga

Erriberako Tindategia

Etxe hau ikur bat da Erriberan. Tindategia izan zen, Toldos Bilbao Goyoaga enpresaren albo-alboan zegoen, ezkerretara ikusten den San Felicisimo Bidea kalezulo bereizten zuen. Iragan mendeko argazki hau eraitsitako eraikinen sail honetara ekarri dut Erriberan gertatzen ari denaren adibide gisa, etxe gehienak suntsitzen ari baitira.

Edurne Urkizuk utzitako argazkia.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

Iragar zaitez
Prest!-en
tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com

AZALA
TATTOO STUDIO
Errondoko kalea z/g. Ibarrekolanda
tlf. 640 903 311
instagrama: @azala.tattoo

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

Optica Avenida
Agirre Lehendakaria, 147
SAN INAZIO
Tfonoa: 94 475 11 24

ATXURI TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak
656 410 475
Plaza Celestino Mª del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 656 410 475
alonsoper@outlook.com

Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4

Toki Berri Taberna
Good vives!
Luzarra, 6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun
Tintorería La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu

artez
euskara zerbitzua
Probatu
herrizki.eus
ANDROID APP Google play
App Store

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek ■ euskaltegia
Matrikula zaitez!

Nailan
Parquetak - Barnizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

KM PERSIANAS CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL. persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23

Zer leku berri ezagutu duzu azken bolada honetan?

Jon
Indautxu

San Bartolome eta Elorriaga mendiak. Ez nengoen egonda eta asko gustatu zaizkit, desberdinak dira.

Maider
Leioa

Konfinamendu ostean unibertsitatearen atzean dagoen basora joan naiz sarri. Ez nuen ezagutzen.

Silvia
Donostia – Deustu

Blas de Otero kalean dagoen Jacinta taberna ezagutu dut, asko gustatu zaizkit bertako irabiakiak.

Marcio
Deustu

Orain dela gutxi Ojo del diablora joan naiz, Sonabiako hondartzatik gertu. Begiratoki izugarri polita da.

Nagore
Donostia – Deustu

Leioako Unibertsitatean dagoen Txakoli Baserria ezagutu dut.

Alberto
San Inazio

Azken urte honetan San Inazioko kanaleko pasealeku berrira askotan joan naiz paseatzera, ez nuen ezagutzen eta asko gustatu zait.

>> LITERATURA

"POESIA EUSKARAZ IDAZTEA ERRONKA BAT DA"

Gazteak dira Dafne Gonzalez Villar eta Gerizeti Zubiaurre Bañuelos, poesia idazten dute eta emakumeak dira. Ez da hausazko deskribapena, euren ibilbidea markatu duten elementuak baizik, eta besteren artean horiei buruz aritu gara hurrengo artikulua osatzeko.

Testua: Jone GG

Haurrak zirela hasi ziren idazten Gerizeti Zubiaurre eta Dafne Gonzalez. Poesia eta artea "komunikatzeko modu bat" bezala bizi ditu Dafnek. Txikitan ume isila zen, dena gordetzen zuen barruan, eta idaztearekin batera hasi zen barrukoa ateratzen, komunikatzen. "Beti esaten dut poesia hizkuntza bat dela: errimarekin idatzi daiteke, edo gabe, neurri eta forma desberdinekin, prosa poetikoa ere badago…", azaldu digu.

Lagunak badira ere, ez dute ibilbide bera izan, eta biek ez dute berdin idazten. Gerizeti errima zalea da, "klasikoa"; Dafne ez, azken aldian prosa poetikora jo du. Zeri buruz idazten duten galdetuta, Gerizetik bere barne borrokak atera dizkigu. Bere sentimenduei buruz idatzi ala gai politikoen inguruan, dudatan egon da luzaroan, baina bi gauzak posible direla deritzo: "Nik barrenak ateratzen ditut idazterakoan, lasaitzeko modu bat ere bada, eta egunaren arabera gauza politak idatz ditzaket, edo haserrealdiak".

Inspirazioa ere landu behar

Lumarekin abilezia trebatu behar den gauza bat da, ez du soilik inspirazioak balio. Argi dute bi poeta gazteek, eta horretarako ariketa batzuk erakutsi dizkigute. Dafnek, esaterako, urtebete darama ia egunero 400 hitz idazten, erronka gisa. Gerizteik 'Scapril' desafioaren berri eman digu. Apirilean zehar beste norbaitek emandako hitz edo gai baten inguruan idatzi behar da, egunero. Era berean, azkartasuna lantzeko bertsolaritza oso ondo datorkiola azaldu diogu.

Euskaraz idaztea ere trebatzen jarraitzeko erreminta da bi gazteentzat. "Poesia euskaraz idaztea erronka bat da, oso erreferente gutxi daudenez hobetzeko baliabide gutxi dagoelako. Nik momentu batean utzi nion euskaraz idazteari", diosku Dafnek. Gerizeti orain dela gutxi hasi da euskaraz gehiago idazten. Orain arte bertsolaritza euskaraz egiten zuen eta idatzi gaztelaniaz, baina euskarazko idatzizko literaturan hutsune bat sumatu zuen eta bere ekarpena egin nahi du. "Euskaraz idaztea kostatu egiten zait, ez dudalako landuta, baina pozik nago hobetzen laguntzen didalako", gaineratu du.

Plaza berriak

Intimitatean idazten zuena publikatzea asko kostatu zitzaion Gerizetiri, "idatzitakoarekin erabat gustura egotea oso zaila" iruditzen zitzaiolako. Azkenean, senideek, lagunek eta ikaskideek bultzatuta, 'gerizeti.medium.com' izeneko bloga zabaldu zuen eta bertan argitaratzen ditu lan batzuk. Dafnek 'El rincón donde me habito' izeneko blogean (dafnegovi.blogspot.com) argitaratzen ditu lanak eta instagram kontuan (@dafnegovi) errezitatu ere egiten digu.

Poesiarentzat gero eta plaza gehiago aurkitzen dituzte Bilbon. Aurkitu baino, sortu behar izan dituzte. Nerabe zela 'Noches poéticas' saioetan parte hartzen zuen Dafnek, baina "gazte eta emakume bezala denbora osoan eraso egina" sentitzen zen, eta beste lagun batzuekin 'Imaginautak' espazioa sortu zuen. Diziplina anitzeko gazteen sormen topagunea da, eta noizean behin Bilborocken topaketan eta erakustaldiak antolatzen dituzte. Gero, 'La Bernarda' ekitaldia sortu zuten Erriberan, emakume artistentzako espazioa, tartean, poesia errezitatzaileak. Gaztetxeetan ere gero eta leku gehiago dute, Deustun ospatutako Bilboko Gazte Sortzaileen Azokan, esaterako, Gerizeti egon zen errezitatzen beste bi kiderekin batera.

Gazteentzako eta emakumeentzako plazak sortzea positiboa dela uste du Gerizetik. Izan ere, literaturaren arloan emakume izatea "oso zaila" dela uste du: "Klase altuko gizonek erabakitzen dute zer den artea eta zer den, zer den literatura eta zer ez… Amorrua ematen dit, ingurura begiratzen dudanean idazten dugunon artean gehiengoa emakumeak garela ikusten dudalako. Ematen du guk bikoitza egin behar dugula aitorpen bera izateko".

Oharra: artikuluaren bertsio luzea URIOLA.EUS atarian argitaratuko dugu

http://sarekada

Bloga: Deustuko Errepublika/Deustualdea

Pedro Zuberogoitiak Deustuko udalerria osatu zuten auzoen kronikak, kontu berriak eta zaharrak bildu ditu Deustuko Errepublika/Deustualdea blogean. *Blogak.eus/deustuko-errepublika-deustualdea* helbidean kuxkuxeatu ditzakezue azken sarrerak, eta txioka ere aurkituko duzue @pedrozuberogoit kontuan.

Pantailak Euskaraz

Ikus-entzunezkoetan diharduten hainbat herri ekimen bildu dira Pantailak Euskaraz mugimenduan. Sektorean euskarak duen presentzia eskasarekin arduratuta "egoera irauli eta euskarazko etorkizun bat lortzeko" asmoa azaldu dute. Momentuz ekimen hauek osatzen dute: Netflix euskaraz eta Disney+ Euskaraz herri ekimenek, zinema aretoetan euskara sustatzen 25 urte daramatzan Tinko Euskara Elkarteak, euskarazko bikoizketaren murrizketei aurre egiteko duela 3 urte jaio zen Bieuse, eta, berriki mugimendura batu den Zinemak Euskaraz ekimenak. *Pantailakeuskaraz.eus* webgunean hainbat sinadura bilketa jarri dituzte martxan.

Jolasparkeak.eus

Berrituta eta osatuta dator 2017ko uztailean jaiotako *jolasparkeak.eus* ataria. Arrasateko Txatxilipurdi elkarteak, Olgeta baliabide zerbitzuak eta Goiena Komunikazio Taldeak bultzatu dute proiektua. Lau urteotan Euskal Herri osoan 60 bat jolasgune, jolas parke eta urgune bildu ditu gidak, eta aurrerantzean 'heziguneak' izeneko atala ere izango du. Ataria mugikorretatik kontsultatzeko egokitu dute eta nork bere herriko espazioak proposatzeko esteka jarri dute webgunean.

>> KULTURARTEKOTASUNA

GAUEAN: 10 URTE ESKU-HARTZE KOMUNITARIOAREN BAITAN

GAUEAN Ibarrekolandan duela 10 urte baino gehiago errotuta dagoen proiektua da. Harribide Elkarteak Ekaitz Taldearekin egindako sareari esker jarri zen martxan, etorkinei gaua pasatzeko leku bat emateko proiektu gisa.

Testua: Andoni Lopez Virues **Argazkiak:** Harribide Elkartea

Ruth Martinezen hitzetan, Harribideko etorkinentzako harrera programaren koordinatzailea dena, GAUEANen bidez egiten den lana afaria eta lo egiteko leku bat ematea baino haratago doa, leku fisikoa eskaini ez ezik, ahal den neurrian eroso sentiarazteko lana egiten delako: haiekin afaltzea eta lo egitea, sozializaziorako eremu bat eskaintzea; adibidez, mahai-jokoen bidez…

Proiektu hau Harribidek kudeatzen duen programa baten atal txiki bat baino ez da. Horrekin Ruthek argi utzi nahi du ezin dela ulertu GAUEAN modu isolatu batean. Gainera, programak eskaintzen duena kalitate onean ematen dela bermatzeko, gehienez 6 pertsonek erabili ahal dituzte eskainitako errekurtsoak. Aldi berean, kantitate hori bermatzeko, Harribideren bidez jarraipena egiten da momentu oro, eta erabiltzaileei eskatzen zaie ikastaroren bat egitea, hau ere Harribidek kudeatzen duena, jakiteko goizean esnatzen direnean norabait joango direla.

GAUEAN proiektuaren bidez egiten den lana 2010ean gauzatu zen lehen aldiz Ibarrekolandako Parrokian kokatuta dagoen lokalean. Proiektua 2010ean era profesionalizatu baten hasi zen, Ruthek deskribatzen duen moduan. Momentu horretatik aurrera, eta denbora tarte oso txikian, gauzak asko aldatu ziren. 2011 urtean kokatu behar gara, proiektuak jada urte bat zuenean. Momentu horretan Zorrotzaurreko fabrika zaharretan hainbat etorkinek egiten zuten lo. Zenbait komunikabideren bidez, gazteek auzoan zuten presentziaren aurkako



kanpaina hasi zen, auzoan egondako istiluak eta lapurretak haiei egotziz, auzokoen testigantzak erabiliz eta egindako polizia-sarekaden argazkiak argitaratuz, gazteen aurpegia estali gabe.

Ruthek adierazi du urte berean krisiaren eragina areagotu egin zela zerbitzu publikoetan, eta ezin zutenez proiektuarekin jarraitu, geldialdi bat egin behar izan zutela. Hala ere, lehenengo urte horietan Ibarrekolanda eta San Inazioko auzokideekin egindako harremanagatik, proiektuak jarraitu zuen, bigarren etapa bat hasiz boluntarioen bidez. Proiektuak bide berdina jarraitu zuen, baina profesionalak egon beharrean, auzokideek GAUEANek jarraitu behar zuela iritzita, komunitatea eraiki zuten proiektuari jarraipena emateko.

Horrela, proiektuaren birmoldaketaren bidez, “gauzak aldatzeko aukera egokia” ikusi zuten, etorkinen gaian auzokideak hezi ahalko zirelako, aurrez aurre haien errealitatea ezagutuko zutelako eta boluntariotza egitea erabakitzen zuten pertsonek zenbait formakuntza ikastaro jasoko zituztelako. 2012ko maiatzetik hona, horrela mantendu da proiektua, azarotik ekainera Ibarrekolandan dagoen lokalaren ateak irekiz, bai behar duten gazteentzat, bai boluntarioak diren auzokideentzat, Harribidetik diseinatzen den ibilbide-orria jarraituz lan egiten dutenak.

Ibrak, bere garaian GAUEANeko erabiltzailea izan zena, proiektuari esker garatutako autonomia azpimarratzen du. Hori ez ezik, GAUEANi esker izan dituen aukerei buruz ere pozik hitz egiten du. Horren adibide moduan, Ibrak gutxi barru lanpostu bat lortuko du jasotako formakuntzari esker eta proiektuan boluntarioa izan zen pertsona batekin egindako harremanagatik. Berarentzat oso garrantzitsua da lan hori lortzea, azken finean, inposa-tzen dioten burokrazia administratiboan emango duen lehenengo pausua delako.

PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

Tripakiak

Ikusmin handia sortu du Gabiñaren irekierak. Aurten ohi baino beranduago zabaldu dituzte garagardotegiko ateak, baina amaitu da itxaronaldia eta dagoeneko bertaratzen den orok dastatu ditzake bertako plater goxoak.

Zailtasun maila: ertaina

Egiteko denbora: 4 ordu gutxienez

Prezioa: 8'15 euro kazola

Berezitasuna: sekretua saltsan dago

Kontu batzuk

1980an ireki zuten Gabiña garagardotegia Albertoren gurasoek Jon Arrospide kaleko 28. zenbakian. Mende berriarekin batera Alberto eta Jabier Gabiña anaiek hartu zuten negozioaren gidaritza; orain, denboraldi berriari ekiteko, aldaketa berria dakarte: Jabierrek negozioa utzi eta Miguel Angel sukaldariarekin elkartu da Alberto familiaren lekukoarekin jarraitzeko. Bategiteak ekarriko duen berrikuntza nabariena negozioa urte osoan irekitzeko asmoa da. Astean zehar gosariak eta eguneko menuak emango dituzte eta asteburuetan garagardotegi gisara funtzionatuko dute. Deustutik kanpo ere ezagunak diren oilaskoez gain, askotariko errazioak prestatzen dituzte. Horietako baten berri eman digute ekaineko Pintxodromoan.

CERVECERÍA GABIÑA

GABIÑA GARAGARDOTEGIA

Jon Arrospide 28, Eraso Generalarekin izkina egiten

Astelehenetik ostiralera 18:00-23:00
Larunbat eta igandetan 12:00-23:00 (16:00-19:00 itxita)
696 116 402
adm.cerveceria@gmail.com
Facebook: Cerveceria Gabiña

OSAGAIAK

Tipula
Berakatza
Pipermina
Azenarioa
Piper txorizeroa
Ogia

Zelan egin?

Etxeko betiko errezeta erabiltzen dute tripakiak prestatzeko. Miguel sukaldari eta bazkide berria aurkitu dugu Gabiñatarren pausuak jarraitzen. Lehenik eta behin barazki guztiak moztu eta denak batera gorritu behar direla kontatu digu. Zuku guztia joan arte izaten dituzte sutan, ia 3 ordu. Horren ostean ogia eta piper txorizeroaren mamia gehitzen diote. Apur bat pikatu dezan, pipermin pitin bat botatzen diote. Geroago salda edo ura gaineratu, dena xehatu eta iragazi behar da. Saltsa eginda dagoenean tripakiak gaineratzen dituzte. Astean zehar arratsaldero eta asteburuetan bazkaltzeko ere izaten dituzte prest mimo eta tentu handiz prestatutako tripakiak.

Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!
Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...

ZURE PINTXO ONENAK GUREKIN KONPARTITZEKO

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN

kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa

HODEI TORRES FERNANDEZ
Ikusi makusi

NON DAGO JESSICA HYDE?

Imajinatu Coen anaiak, Danny Boyle eta David Lynch-ek elkartzen direla haien ideiak eta estiloak serie sailkaezin eta berdingabe bat sortzeko. Hori gutxi ez balitz, komikiaren estetika baliatuta thriller *konspiranoiko* bat bihurtu eta Utopia telesaila izango dugu eskuartean. 2013an estreinatu zuten Channel 4 ekoizle britainarrek (2020an bertsio berri bat egin dute, ez zaitezte nahastu). Black Mirror eta beste apustu berezi batzuk bezala, asko zor diogu telebista britaniarrari.

Koloreak eta konposizio geometrikoak ikaragarri erakargarriak dira, argazkilaritza oso zaindua du eta. Askotan ahaztu egiten dugun musika, ikus-entzunezkoetan beste erdi hori, zein ondo eginda eta aukeratuta dagoen sentituko dugu, askotan ezinegona sortuko digula. Cristobal Tapia de Veer artistak sortu du eszenatan horren ondo bateratuta dagoen musika.

Serieak biolentzia gordina ageri du momentu askotan eta, Dennis Kelly sortzailearen hitzetan, horrela izan behar da, biolentzia gogorra eta gordina bezala ulertu behar dugulako, artifizio barik. Aurrekontu txikiko produkzio bat izanagatik, oso emaitza ona lortu zuen. Aktoreek lan bikaina egiten dutela aipatu behar da, Grant umearen papera egiten duen Oliver Woollforden lana nabarmenduz.

Utopia esperimentuak izeneko komiki arraro bati buruzko txat batean elkar ezagutzen duen friki talde bateko kideak konspirazio eta istorio kaotiko batean murgilduko dira. Halako batean komikiaren bila dabiltzan bi tipo basati frikien atzetik hasiko dira...

Maitatu ala gorrotatuko duzue, baina galdera hau zuen memorian geratuko da: “Non dago Jessica Hyde?”

MAITE SARASOLA ISAZELAIA
Elorri bertso-eskolako kidea

Doinua: Baneza eta banitu

8 errima emanda,
ta gaia zein den esanda
asteartetako banda
klasea ala parranda?
Ahal izan dudan dena irakatsiz
sarri egin dugu eztanda.
Oso eskertuta sentitzen naiz ta
beraz nola ez esan ba:
nahiz urtebetez bertso ikasgela
bihurtuko_zaidan Irlanda
zuen taldeko parte izatea
ohore hutsa izan da!

Kantuen bidez jolasten
trabatuz, berriro hasten
baina ni naiz aberasten
zuen ondoan ikasten.
Urtebeteko ohitura nola
ezin den horren erraz ken
Salva, Iratxo, Libe ta Egoitz
zuei nabil adierazten:
neurri txikian, koplan, handian
bapatean zein idazten,
segi zazue bertso kantari
gozatzen ta gozarazten!

EGIN ZAITEZ BABESLE!

PREST! aldizkariko babesle hori:

Martxan da 2021eko babesle kanpaina. PREST! aldizkariak beste 20 urte iraun ditzan irakurle eta deustuar ororen laguntza ezinbestekoa da. Mezu honen bitartez jakinarazi nahi dizugu ekaina amaiera bitartean egin dezakezula 2021eko zure ekarpena. Dagoeneko mezu elektroniko bat jasoko zenuen argipenekin, ez bada horrela jar zaitez gurekin harremanetan, mesedez. Bestalde, hiru ohar:

- **PREST! aldizkariaren babesle bazara eta martxoan ez bazenuen jaso *'20 urte eta PREST!'* lamina, esaiguzu eta bidaliko dizugu.**

- **Azkenaldian arazoak izaten ari gara banaketarekin. Hainbat aldizkari itzuli dizkigute helbidea okerra delakoan. Aldizkaria jasotzeko arazorik izan baduzu jarri gurekin harremanetan arazoa lehenbailehen konpontzeko.**

- **Amaitzeko, asko eskertuko genizuke zure lagun eta ezagunen artean kanpainaren berri emango bazenu, PREST! aldizkaria jasotzen duen oro babesle izan dadila lortzeko. Babesle berriek esteka honetan bete ditzakete euren datuak:**

Eskerrik asko zure babesagatik

PREST! aldizkariko lantaldea

DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA
Prest!

Harremanetarako:
prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 – behea
48014 - Deustu

EGIN ZAITEZ BABESLE!

PREST! aldizkariak beste 20 urte iraun ditzan lagundu nahi?

Egin zaitez babesle!

Zure datuak betetzeko idatzi mezu bat helbide honetara:

prestharpide@gmail.com

***OHARRA:** Datorren urtetik aurrera PREST! eta BERBAIZUren babesle kuotak bateratuko ditugu. Helburua elkartearen egoera ekonomikoa egonkortzea eta autonomia handitzea da. Soilik era honetan lortuko dugu PREST! aldizkariak eta BERBAIZU Euskara Elkarteak luzaroan irautea.

2021ean 25 euroko kuota kobratuko du PREST!ek

2022tik aurrera hiru aukera eskainiko ditugu:

30€ gazte/langabe/prekario; 60€ kuota arrunta; 75€ familia

Babesleek hilero jasoko dute PREST! paperean eta digitalean, deskontuak izango dituzte Berbaizuren zerbitzuetan, errenta aitorpenean zerga-aringarriak izango dituzte eta hainbat zozketetan parte hartzeko aukera izango dute.

Gainera, aurten 20. urteurrenaren lamina jasoko duzu opari!

DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

Prest!